

## Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN

31/2024 TXOSTENA

**Gaia:** Bermeoko transformazio azpiestazioa eraldatzeko Plan Bereziaren hasierako onespina

**Espediente zenbakia:** IDA\_ERA\_0120 (2022)

**Sail tramitatzailea:** Urigintza, Obra eta Ingurumen saila

**Txostenaren oinarria:** Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.7 artikulua

### Aurrekariak

**Lehena.-** 2022ko maiatzaren 9an, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU, Bermeoko transformazio azpiestazioa eraldatzeko Plan Berezia onartzeko eskaera egin zuen eta ingurumen dokumentu estrategiko aurkeztu zituen Udalean.

**Bigarrena.-** 2022ko ekainaren 7an Urdaibai Biosfera Erreserbako Zerbitzuak emandako txostenaren arabera: "...el Proyecto de ampliación de la STR BERMEO 13/30 kV, promovido por i-DE REDES ELECTRICAS INTELIGENTES, S.A.U., en relación a las actuaciones a realizar en el ámbito del Suelo No Urbanizable de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, se adapta a lo dispuesto en el apartado III del presente documento referente al PRUG."

**Hirugarrena.-** 2022ko uztailaren 26an ingurumenaren kalitatearen eta ekonomia zirkularraren zuzendariaren ebazpena jaso zen, non ondorioztatzen zen: "Determinar que, de acuerdo con los términos establecidos en este informe ambiental estratégico, y siempre que se adopten las medidas protectoras y correctoras establecidas en la presente Resolución, así como las planteadas por el promotor que no se opongan a las anteriores, no se prevé que el Plan Especial para la ampliación de la subestación transformadora de 30/13 KV - STR Bermeo, en el término municipal de Bermeo, vaya a producir efectos adversos significativos sobre el medio ambiente y, por tanto, no debe someterse a evaluación ambiental estratégica ordinaria."



**Laugarrena.-** 2023ko azaroaren 13an udal arkitektoak txostena egin zuen zuzenketak eskatuz.

**Bosgarrena.-** 2023ko abenduaren 27ko sarrera datarekin (202314791 sarrera) I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUk errekerimenduari erantzun zion.

**Seigarrena.-** 2024ko apirilaren 11ko sarrera datarekin Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak bete beharreko baldintzak jaso ditu.

**Zazpigarrena.-** 2024ko ekainaren 3an udal arkitektoak aldeko txostena egin du.

**Zortzigarrena.-** 2024ko ekainaren 17an udal arkitektoak aldeko txostena egin du.

**Bederatzigarrena.-** 2024ko ekainaren 19an Urigintza, Obra eta Ingurumen saileko AOTak txosten juridikoa eta Hiri Antolamendurako Plan Berezia onartzeko erabaki proposamena egin ditu.

## Oinarri juridikoak

### 1. Aplikagarria den araudia

- Ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzako euskal legea
- Martxoaren 24ko 46/2020 Dekretua, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen
- Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa
- Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, Ingurumenaren ebaluaketarena
- Azaroaren 19ko 179/2019 Dekretua, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa
- Ekainaren 3ko 90/2014 Dekretua Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa
- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen (21. eta 22. artikulua). Aurrerantzean LRBRL



- Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa
- Urriaren 1eko 39/2015 legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa

## 2. Azterketa juridikoa

### Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren helburuei buruz

Kasu honetan, Hiri Antolamendurako Plan Berezi honen helburua da **eremua elikatzen duen egungo azpiestazioa handitzea**, alboko partzelak erabiliz. Horrekin lotuta, HAPOaren 1.3.5 artikulua zehazten du lurzoru ez urbanizagarrian Plan Berezia izango dela planeamendu mota posiblea, bai hornikuntzarako sistemen garapenean edo azpiegiturena, bai paisaia-naturaren babes areen espezifikazioan edo Herriguneak arautzeko. Bestalde, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean ezarritakora makurtuko da bere aplikazio eremuan.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 69. artikuluan agintzen duenaren arabera, plan bereziek bi esparru-mota har ditzakete antolamendua egiteko: batetik, udalerrri osoa edo udalerrriaren zati bat, lurzoru mota bat edo gehiago hartuta; eta bestetik, **plangintza orokorrak definitutako** edo plan bereziak berak bere xedearekin bat etorritik zehaztutako **esparru edo area jakin bat**.

**Plan partzialetarako aurreikusitako enpresa agiritan** formalizatuko dira plan bereziaren zehaztapenak ere; agiriaren edukia, ordea, beren xedera moldatuko dute plan bereziek. Urbanizaezin modura sailkaturiko lurzorua ukitzen badute osorik edo zatiren batean, ingurumenarekiko kaltea neurtzeko arauetan eskatzen diren agiriak ere jaso beharko dituzte; baina kasu honetan ez du lursail urbaniza ezinik ukitzen.

Lege bereko 70. artikuluan, hau agintzen da: plan orokorraren egiturazko antolamendua garatzea da hiria antolatzeko plan bereziaren xedea, eta hori, hain zuzen, plan orokorraren egiturazko antolamendua atzeratzea baimentzen duen hiri-lurzoruaren aretan antolamendu xehatua ezarrita egiten du. Hiri-lurzoruari buruz plan orokorraren agiritan jasotako antolamendu xehatua aldatzeko ere erabil daiteke hiria antolatzeko



plan berezia.

Kasu honetan, esandako moduan Hiri Antolamendurako Plan Berezi honen helburua da eremua elikatzen duen **egungo azpiestazioa handitzea**. Hau da, azpiestazioa handitzea, bai azalerari dagokionez, bai ahalmen elektrikoari dagokionez eta bai tentsioari dagokionez.

Transformazio azpiestazioaren partzelaren **gaur egungo hirigintza parametroak ondoren** aipatzen direnak dira:

Katastro zenbakia **346. partzela**

Sailkapena: Lurzoru urbanizaezina

Kalifikazio Orokorra (HAPOaren arabera): Z Azpiegitura eta zerbitzuen sistema Kalifikazio xehatua Z.1-EZ Zerbitzuak instalazioak (elektrizitatea)

(HAPOaren arabera): Azalera: 1.214,63 m<sup>2</sup>

Transformazio azpiestazioa handitzeko **erabiliko diren bi partzelen egungo hirigintza parametroak** hauek dira:

Katastro zenbakia: **263. Partzela**

Sailkapena: Lurzoru urbanizaezina

Kalifikazio Orokorra (UBEEKZParen arabera): T1 Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremua

Kalifikazio xehatua (UBEEKZParen arabera): T1.PRT Trantsizioko Landa Paisaiako Eremuak Azalera: 5.221,56 m<sup>2</sup>

Katastro zenbakia: **264. partzela**

Sailkapena: Lurzoru urbanizaezina

Kalifikazio Orokorra (UBEEKZParen arabera): T1 Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Landazabaleko Intereseko Eremua T4 Sistemen Eremua

Kalifikazio xehatua (UBEEKZParen arabera): T1.PRT Trantsizioko Landa Paisaiako Eremuak T4.IS Azpiegiturak eta komunitatearen zerbitzuak hartzeko

Zonak Azalera: 2.165,01 m<sup>2</sup>



**Plan Bereziaren arabera**, eraldatzeko proposatzen den eremuaren antolamendu urbanistikoa ondorengoa izango da:

Sailkapena: Lurzoru urbanizaezina

Kalifikazio Orokorra (HAPOaren arabera): Z Azpiegitura eta zerbitzuen sistema

Kalifikazio zehatua (HAPOaren arabera): Z.1-EZ Zerbitzuak instalazioak (elektrizitatea)

Azalera: 8.601,20 m<sup>2</sup>

Gehienezko eraikigarritasuna: 1.000 m<sup>2</sup> sestra gainerik

Gehienezko sestra gaineko eraikuntza profila: 2 solairu (dagoen lursailaren mailaren sestraren gainerik)

Gehienezko sestra azpiko eraikuntza-profila: 2 solairu (dagoen lursailaren mailaren sestraren azpitik)

Eraikinen gehienezko altura: 6 m (dagoen lursailaren mailarekiko)

Hori guztia jakinda eta aipatu udal-txosten teknikoa ikusita, Antolamendurako Plan Berezia, txosten honetan aztergai duguna, Euskadiko hirigintza-arauek aurrez ikusten dituzten xedearekin eta egitekoekin **bat dator**.

### **Espedienteak egon beharreko bestelako agiriei buruz**

Lurzoru eta Hirigintzari buruzko euskal Legearen 69.3. artikuluri jarraituta, Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren Plan Partzialen kasuan jasotzen diren antzeko agiriak jaso beharko dira, beti ere, plan bereziari berari egokituta.

Hain zuzen ere, atal horrek dio: *Plan partzialetarako aurreikusitako antzekoetan formalizatuko dira plan bereziaren zehaztapenak ere; agirien edukia, ordea, beren xedera moldatuko dute plan bereziek. Urbaniza ezin modura sailkaturiko lurzorua ukitzen badute osorik edo zatiren batean, ingurumenarekiko kaltea neurtzeko arauetan eskatzen diren agiriak ere jaso beharko dituzte.*

Lurzoru eta Hirigintzari buruzko euskal Legearen 68.artikuluarekin bat, espedientearen egon beharreko agiriak dira:



- a) **Memoria informatiboa eta justifikatiboa.** Plangintza- ahalmena baliatzeko beharrezko irizpen-elementuak dakartzan informazio guztia jaso beharko du; zehazki, erabakiak hartzeko alternatibak formulatzeko eta hautatzeko prozesuaren azalpena, herritarrek egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa, eta plan orokorrak ezarritako egiturazko eta zuzentarauzko antolamenduari egokitzea.
- b) **Informazio-planoak.**
- c) **Antolamendu xehatuaren planoak.**
- d) **Egikaritzea antolatzeko eta kudeatzeko jarraibideen azterketa.**
- e) **Plan orokorreko arauak garatzeko hirigintza arauak.**
- f) **Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.**

Espedientean agiri guzti horiek daude.

Hala ere, Hiri Antolamendurako Plan Berezia onartu ahal izateko, agiri horietaz gain, hurrengoak ere egon beharko dira espedientean:

- **Ingurumen-ebaluaketa estrategikoa**

Ingurumen-ebaluaketa estrategikoa 21/2013 Legearen 6.2. artikularekin bat:

**2. Serán objeto de una evaluación ambiental estratégica simplificada:**

- a) *Las modificaciones menores de los planes y programas mencionados en el apartado anterior.*
- b) *Los planes y programas mencionados en el apartado anterior que establezcan el uso, a nivel municipal, de zonas de reducida extensión.*
- c) *Los planes y programas que, estableciendo un marco para la autorización en el futuro de proyectos, no cumplan los demás requisitos mencionados en el apartado anterior.*

Ingurumen ebaluazio estrategikoaren kasuan, kontuan izan behar da 46/2020 Dekretuaren 6. artikularen arabera, Hiri Antolamendurako Plan Bereziak (besteak beste) ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren mende jarri beharko dira, ingurumen-ebaluazioaren alorrean indarrean dagoen araudian aurreikusitako



baldintzetan. Eta arau bereko 8. artikulua araberan ezin izango da behin betiko onetsi ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren mende jarri den plan-aldaketa bat edo plan bat, baldin eta aurretik ingurumen-adierazpen estrategikoa egin ez bada, edo, ingurumen-ebaluazio sinplifikatuaren kasuan, ingurumen-txosten estrategikoa egin ez bada.

Horretaz gain, 31. artikulua araberan:<sup>1</sup>

*2. Ekimen partikularreko plan partzialen kasuan, ekimenaren sustatzaileak udalean aurkeztuko du plan partziala, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren hasierako eskabidearekin batera, eta ingurumen-ebaluazio estrategikoari buruzko araudian aurreikusitakoaren arabera osatutako ingurumen-dokumentu estrategikoarekin batera. Udal-ekimeneko plan partzialen kasuan, udalak idatziko du dokumentazio hori, eta zuzenean bidaliko du ingurumen-organora.*

*3. Bai ekimen partikularreko plan partzialen kasuan bai administrazio publiko eskudunak ofizioz egiten dituenen kasuan, ingurumen-txosten estrategikoa egin eta ingurumen-organok hura jaso aurretik, hasierako onarpena eman ahal izango zaie plan partzialei, bai eta jendaurrean jartzeko izapidea bete dela egiaztatu ere. Halakoetan, plana hasieran onartzeko erabakiak adieraziko du onarpena ingurumen-txosten estrategikoaren emaitzaren baitan dagoela.*

*4. Baldin eta ingurumen-organok erabakitzen badu ez dela aurreikusten plan partzialak ingurumenean ondorio nabarmenik izango duenik, planaren izapidetzeak aurrera egingo du, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.*

*5. Bestela, txostenak xedatuko du plana ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren eraginpean jarri behar dela. Ingurumen-organok ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egingo du eta dokumentu horren berri emango dio udalari, edo*

<sup>1</sup> Martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 31. artikulua araberan Plan bereziak dekretu honetan plan partzialetarako ezarritakoaren arabera egin eta onetsiko dira.



*hala badagokio, udalari eta sustatzaileari, eta haiek jarraitu beharko dute ondorengo apartatuetan aurreikusitako izapideak egiten:*

*a) Udalak, edo, hala badagokio, sustatzaileak plan partzialaren hasierako onespenezko dokumentua eta ingurumen-azterketa estrategikoa egingo ditu irismen-dokumentua kontuan hartuta, eta plan partzialaren hasierako onespenezko gauzatuko du.*

*b) Ondoren, udalak, onespenezko horrekin batera, jendaurreko informazioaren nahitaezko izapidearen mende jarriko du plana, berrogeita bost egun balioduneko epean, iragarkia dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratzen denetik aurrera; plana, era berean, tirada handieneko egunkarian edo egunkarietan argitaratuko da; horrez gain, eta aldi berean, eraginpeko administrazio publikoen eta alde aurretik kontsulta egin zaien pertsona interesdunen kontsulta-izapidearen mende ere jarriko du plana.*

*c) Udala, aurreko izapideen alegazioak kontuan hartuta, behin-behingo onetsiko du, eta espediente ingurumen-organora bidaliko du ingurumen-adierazpen estrategikoa egiteko. Adierazpen hori bi hilabeteko epean egin eta jakinarazi beharko da, eta epe horretan egiten ez bada, izapideak egiten jarraitu ahal izango da.*

...

2022ko uztailaren 26an ingurumenaren kalitatearen eta ekonomia zirkularren zuzendariaren ebazpena jaso zen, Plan Bereziaren ingurumen-txosten estrategikoa formulatzen Bermeoko 30/13 kv-ko transformazio-azpiestazioaren inguruan.

### **Jasangarritasun ekonomikoa justifikatzeko memoria**

Plan Bereziaren 1. eranskinean jaso da.

- **Genero ikuspuntutik izan dezakeen eraginaren ebaluaketa**

4/2005 Euskadiko Berdintasunari buruzko Legearen 19.1.artikuluak zera dio:





1.- *Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonek kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean.*

Plan Bereziaren 3. eranskinean jaso da.

- **Hizkuntza ikuspuntutik izan dezakeen eragina justifikatzeko agiria edo eraginik izango ez duenaren udal teknikariaren adierazpena**

Toki Erakundeen Euskadiko Legearen 7.7 artikulua adierazten du Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabilerearen normalizazioari dagokionez izan lezaketan inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira.

Eta horri lotuta, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko dekretuaren 50. artikuluan jasotzen dira ebaluatu behar diren plan eta proiektuak zeintzuk diren eta horien artean daude:

1. *Udalek behean zerrendatzen diren plan eta proiektuen hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko dute, bai eta horien funtsezko aldaketak ere, baldin eta euskararen erabilera eragina izango badute:*

a. *Planak:*

*Hiri-antolamenduko plan orokorrak.*

*Plangintza orokorra bateragarri egiteko plana.*

*Sektorizatze-plana.*

*Plangintzako arau subsidiarioak.*



*Plan partzialak.*

*Hiri-antolamenduko plan bereziak.*

*Turismo-planak.*

*b. Proiektuak:*

*Merkataritzagune handiak eraikitzeko proiektuak.*

*Industria guneak eta teknologia-parkeak eraikitzeko proiektuak.*

*2. Aurreko zerrendan aipatutakoez gain, arnaguneetako euskararen erabileran eragina izan dezaketen plan eta proiektu guztiak ebaluatu beharko dira.*

51. artikuluan ebaluaziotik salbuetsitako kasuak aurreikusten dira. Eta hauek dira:

- a) Funtsezkoak ez diren aldaketak egiten direnean plan edo proiektuetan.*
- b) Hizkuntza-inpakturik eragiten ez duten planak onartzean eta proiektuei baimena edo gaikuntza ematean.*
- c) Aurrez hizkuntza-ebaluazioa izan duen plan batetik eratorritako proiektuetan.*

*Aurreko apartatuan adierazitako kasuetako plan eta proiektuei onarpena, baimena edo gaikuntza emateko funtsezko espedientean, egoera horren berri jasotzen duen txosten bat erantsi beharko da.*

Dekretuaren ondorengo artikuluetan, hain zuzen ere, 52. artikuluan, jaso da hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa, onarpena edo baimena behar duten plan eta proiektuetan eta erantzukizunpeko adierazpena edo komunikazioa behar duten proiektuetan jarraitu beharreko prozedura, eta 53. artikuluan, Hizkuntza-azterlanaren irismena zehaztearen inguruko arauak jaso dira.

Udal arkitektoaren eta Urigintza, Obra eta Ingurumen teknikarien txostenen arabera aurkeztutako plan bereziak ez dauka hizkuntzaren ikuspuntutik eragin esanguratsurik eta ELE hizkuntza inpaktuaren azterlana egitea ez litzateke beharrezkoa.

- **Paisaiaren gaineko eraginaren azterketa**



Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko 90/2014 Dekretuaren 7.artikuluak zera dio:

"Los Estudios de integración paisajística son los documentos técnicos destinados a considerar las consecuencias que tiene sobre el paisaje la ejecución de proyectos de obras y actividades, así como a exponer los criterios y las medidas adoptadas para la adecuada integración de las obras y actividades en el paisaje.

1. Los Estudios de integración paisajística recogerán, al menos, los siguientes contenidos:

a. La descripción del estado del paisaje: principales componentes, valores paisajísticos, visibilidad y fragilidad del paisaje.

b. Las características del proyecto: emplazamiento e inserción, documentos que definen el proyecto tales como, alzados, secciones, plantas, volumetría, colores, materiales y otros aspectos relevantes.

c. Los criterios y medidas de integración paisajística: impactos potenciales, análisis de las alternativas, justificación de la solución adoptada, descripción de las medidas adoptadas para la prevención, corrección y compensación de los impactos.

2. La Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco y las entidades de su sector público incorporarán, como documentación adicional de los proyectos de obras o actividades de su competencia que puedan tener un impacto significativo sobre el paisaje, el correspondiente Estudio de integración paisajística. En todo caso, la formulación de Estudios de integración paisajística se exigirá:

a. En las actuaciones a las que se refiere el artículo 28.5 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

b. En los supuestos en que así se requiera por el planeamiento territorial o urbanístico.

c. En la realización de las infraestructuras de transportes o portuarias.

d. En las áreas o enclaves catalogados o inventariados por constituir parte del patrimonio histórico artístico, incluyéndose su entorno.



c. En los proyectos a que se refiere el apartado anterior sujetos a Evaluación individualizada de impacto ambiental, el contenido del Estudio de integración paisajista se incluirá en el Estudio de impacto ambiental.”

Plan Bereziak 5. agirian paisaiaren gaineko eraginaren azterketa egin du.

Beraz, eduki formalari eta jaso dituen agiriei begira, 2/2006 Legearen 68. artikuluan, 21/2013 Legearen 6.2. artikuluan, 6/2019 Legean, 1/2006 Legearen 7.l eta 7.k artikuluan, 179/2019 Dekretuaren 51 zein 53.2. artikuluetan, Berdintasun Legearen 19. artikuluan eta 90/2014 Dekretuaren 7. artikuluan jasotakoak **bete dira**.

### Prozedurari buruz

Ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzaren Euskal Legearen 97.1 artikulua plan berezien eraketa, tramitazio eta onarpenari buruz plan partzialen arauetara jotzen du.

**Tramitazioaren** inguruan, ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzaren Euskal Legearen 95.artikuluak dio:

1.– *Plan partziala egitea udalei dagokie, berez, baina beste edozein pertsona fisiko edo juridikok ere egin dezake.*

2.– *Udalak **hasierako onespena** edo ezespen arrazoitua emango dio plan partzialari. Lehenengo kasuan, **jendaurrean** jarriko du, udalerrinari dagokion lurralde historikoko aldzakari ofizialean eta lurralde horretan tirada gehien duen egunkarian edo egunkarietan hasierako onspena emateko erabakia argitaratuz. Plana **20 egunez** egongo da, **gutxienez**, jendaurrean, azken argitalpenaren egunetik aurrera.*

...

3.– *Jendaurrean egondako epean aurkeztutako **alegazioak** ikusita, udalak behin-behingo edo behin betiko onartuko du plana, bidezko diren aldaketak egin ondoren. Aldaketak funtsezkoak badira, plan partzialaren testu bategin berri bat egingo da. Testu horri hasierako onspena emango zaio eta berriz ere jendaurrean jarriko da.*

4.– *Udalak plana behin-behingo edo **behin betiko** –dagokionez– **onartzeko, sei hilabete** izango ditu gehienez ere, hasierako onspena eman zaionetik kontatuta. Epe hori*



*ebazpenik jakinarazi gabe igarotakoan, plan partziala alderdietako batek eskatuta aurkeztu baldin bada, interesdunak ezetsia izan dela iritzi ahal izango dio.*

*5.- ...3.000 biztanletik gorako udalerrietan, udalaren bigarren onespena behin betiko onespena izango da.*

*6.- ...Halaber, 3.000 biztanletik gorako udalerrietako udalek eskuordetzan utz diezaiekete plan partzialak behin betiko onartzeko ahalmena estatutuen arabera horretarako eskumena duten udalaz gaineko erakunde publikoei edo foru-aldundiari, betiere horiek eskuordetza onartzen badute.*

Artikulu horri gehitu behar dizkiogu martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuak jasotakoak, hain justu ere, **jendurreko argitalpenaren** inguruan, 5. artikulua 2. eta 5. ataletan dioena:

*2.- Hirigintza-planen onspena, berrikuspena eta aldaketa jendurrean jartzeko izapidean, dagozkion iragarkiak argitaratuko dira dagozkion lurralde historikoko aldizkari ofizialean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, hala badagokio, lurraldean hedapen handiena duen edo gehien saltzen den egunkarian eta dagozkion udalaren edo aldundiaren edo, hala badagokio, Autonomia Erkidegoaren egoitza elektronikoan. Udalek ere bidezko iragarkiak eta jendurrean jarri behar den dokumentazioa argitaratuko dituzte beren egoitza elektronikoetan, jendurrean jartzeko legez aurreikusitako epeetan, eta informazio hori behin betiko onetsi arte edukiko dute.*

...

*5.- Jendurrean jartzeko epean argitaratzen diren iragarkietan, hirigintza-tresnen izapidetzean, **kokapen-erreferentziak sartu beharko dira**, eraginpeko eremua identifikatzea ahalbidetuko dutenak, eta eremu horren kokalekua edo kokapena eta antolamenduaren xede diren **areak, sektoreak edo unitateak** zehaztuko dira gutxienez.*

**Behin-betiko onarpenaren** inguruan, ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzaren Euskal Legearen 96. artikulua dio:

*1.- Plan partziala behin betiko onartzeari **ezezkoa** eman ahal izango zaio baldin eta behar bezala errespetatzen ez badira lege honen, lurralde-antolamenduko tresnen edo*



plan orokorraren zehaztapenak, edo sektoreko legeriaren xedapenak, edo betetzen ez badira antolamendu juridikoan ezartzen diren prozedurak, dokumentuak eta eskakizun materialak.

2.– Edozein modutan, plan partzialei 91. artikuluko 5, 6 eta 7. paragrafoetan ezarritakoa aplikatuko zaie.

3.– Behin betiko onespeneraren erabakia plan partzialeko zehaztapenetan aldaketa batzuk sartzeko baldintzapean eman ahal izango da, baldin eta planaren edukia funtsean aldatzen ez badute, eta aldaketok jasotzen dituen testu bategina aurkezteko baldintza ezar daiteke argitaratu ahal izateko. Hori egiten ez bada, ezezkoa emango zaio onespenerari.

4.– ...

Bukatzeko, ezinbestekoa da kontuan izatea ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89. artikulua jasotzen duena argitalpeni buruz eta planak indarrean sartzei buruz:

“89. artikulua.– Argitalpena eta indarraldia.

1.– Hirigintzako planen onarpenari dagokionez, plangintza onartu duen herri-administrazioak **jendaurrean jarriko du haren eduki osoa**, eta edozein pertsonak kontsultatu ahal izango du dokumentazioa.

2.– Foru-aldundietan, hirigintzako plangintzaren **erregistro administratiboa** egongo da.

3.– Artikulu honetako 5. zenbakian aipatzen den argitalpena egin aurretik, hirigintzako planak eta haien aldaketak eta berrikuspenak igorriko dituzte udalek, dagokion foru-aldundiko erregistroan sartzeko. Erregistro horretan ematen diren hirigintza-planen dokumentuen kopiek dokumentu horien edukia egiaztatzen dute lege-ondorio guztietarako.

4.– Aurreko bi paragrafoetan aipatzen diren erregistroek –euskarri informatikoa eta ohikoa izango dituzte– elkarrekin konektatuta egongo dira plangintzaren euskal erregistroa eratzekeo –lurraldearen antolamenduko eskumenak dituen sailak kudeatuko du–. Edozein modutan, egoki antolatuta egon behar dute, kudeaketa-ahalmen nahikoa izan behar baitute, erregistratutako plangintza osatzen duen dokumentazioa edozein pertsonak kontsultatu ahal duela bermatzeko.



5.– Lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko dira, eman dituen organoaren xedapen baten bitartez, behin betiko onespena emateko erabakiak eta, gutxienez, hirigintzako arauak, eta orobat lizentziak eteteko eta etendura kentzeko erabakiak ere, hirigintzako planek aurreko artikuluan adierazitako ondorioak izan ditzaten eta indarrean jar daitezten. Behin betiko onespena emateko erabakiak, gainera, dagokion lurralde historikoan hedadura gehien duen **egunkarian edo egunkarietan** ere argitaratuko dira. Bi kasuetan, **oso osorik argitaratuko dira**, bai eta dagokion hirigintza plana aurreko paragrafoetan aipatutako erregistroan jaso dela adierazi ere.

6.– Hirigintza-planen antolamendu-zehaztapenak indarrean egongo dira harik eta planon berrikuspena edo aldaketa indarrean jarri arte.”

### Eskumenari buruz

Hiri Antolamendurako Plan Berezia **hasiera** baten onartzeko eskumena Alkatearena izango da, Toki Erakundeen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.j. Dena den 2024ko apirilaren 24ko 1886 Alkatetza dekretuaren arabera eskumena **Tokiko Gobernu Batzarrak** dauka eskuordetuta. Ostera, **behin betikoz** onartzeko eskumena **Osoko Bilkurarena** izango da Toki Erakundeen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22.2.c artikuluekin bat. Kontuan izan behar da, osoko bilkurak onartu aurretik, informazio batzordean diktaminatu behar dela.

### Ondorioak

Aurretik aipatutako guztian kontuan hartuz, **aldeko txostena** egiten zaio Bermeoko transformazio azpiestazioa eraldatzeko Plan Bereziaren hasieraz onartzeko proposamenari.




Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, Alkatetzak eta eskumena eskuordetuta duen Tokiko Gobernu Batzarrak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, 2024ko ekainaren 20an

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari Nagusia

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</p>	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E8001014F700J2U2R6A2U5S0</p>	<p><b>Sinadurea eta data</b></p> <p>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/06/2024 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/06/2024 09:29:37</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2022IDA_ERA_0120 Fecha: 09/05/2022 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>
---	--	--	--

